

Estres hidrikoari aurre egitea: ura kudeatzeko erronka

Estres hidrikoaz hitz egiten da denbora tarte jakin batean ur eskaerak eskuragarri dagoen kantitatea gainditzen duenean, edo kalitate eskasagatik erabilera mugatzen denean.

Horren arrazoi nagusiak dira **ur kontsumoa handitzea**, hiri populazioen hazkundeari eta oro har bizitza maila hobetzeari lotuta, eta **erabilgarri dagoen uraren murrizketa**, batez ere kutsadurak eta lehortek eraginda. Ondorioz, ur iturriak (ibaiak eta akuiferoak) gehiegi ustiatzen dira, kalitatean dakarren murrizketarekin, eta horrek zuzenean eragiten dio gure eredu ekonomikoari eta sozialari, osasunean eta elikaduraren segurtasunean dituen inplikazioekin.

Kalkuluen arabera, 2050. urterako Europako biztanleriaren %20 inguruk estres hidrikoa nozitzeko arrisku handia du. Espainia eta eskualde mediterraneoak izango dira kaltetuenak.


Nola aurre egin estres hidrikoari?

Uholde, lehorte eta antzeko ezohiko gertakierikiko zaugarritasuna murrizteak ur operadoreen estrategiaren parte izan behar du, baita estres hidrikoa estruktural bihurtzen den agertokietan ere. Horretarako, **balialibide hidrikoen kudeaketa jasangarria** egin behar da, hau da, arrisku hidroklimatikoak ebaluatzeko dituzten erresilientzia eta egokitzapen planetan inbertitu, hornidura iturrien zaintza lehenetsi, ekonomia zirkularerako trantsizioa bizkortu, berrikuntza bultzatu eta teknologia berriak barneratu, uraren kudeaketa gobernantza indartu eta ingurumen hezkuntzan eta formazioan tematuta.

Dagoen kezka horren ondorioz, Hornidura eta Saneamenduko Operadore Publikoaren Espainiako Elkarteak (AEOPAS), AMVISA horko kide delarik, gida bat aurkeztu berri du, hiriko ur sistemak klima aldaketara egokitzeko. Argitalpenak esparru metodologiko bat proposatzen du, egokitzapen klimatiko uraren hiri zikloaren kudeaketa txertatzeko, eta hornidura, saneamendu eta arazketa arloan esku hartzeko, diseinutik hasi eta jardueren jarraipeneraino.

Uraren erabilera arduratsuan garrantzitsua da **herritarren ekarpena eta inplikazioa** ere, ohitura eraginkorrak hartzeko, **behar dena bakarrik kontsumitzera eta gure aztarna hidrikoa murriztera** bideratuta.

2050erako aurreikusitako estres hidrikoaren maila



AZTARNA HIDRIKOA

Eguneroko jardueretan zuzenean erabiltzen dugun ur bolumena, gehi kontsumitzen ditugun ondasun eta zerbitzu guztiak ekoizteko eta merkaturatzeko erabiltzen den ur gezaren bolumen osoa.



Hiru aztarna mota daude, ura datorren iturriaren arabera:

- Ur urdina:** gizakiak iturri natural edo artifizialeetatik hartutako ura.
- Ur berdea:** euri ura, elurra eta izotz urtua, lurzorua azaleko geruzetan biltegitratzen dena, landareen eta laboreen eskura.
- Ur grisa:** ekoizpen, manufaktura, banaketa eta merkaturatze prozesuetan kutsatutako ura.

Ur birtualaren adibideak:

- Kotoizko kamiseta bat **2.000 litro**
- Baso bat esne **200 litro**
- 1 kg behi haragi **15.000 litro**
- Kikara bat kafe **140 litro**
- 100 hitzeko testu bat ChatGPTn **0,5 litro**

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org